



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Aurri



Abenduaren
23an Urnietara,
eta 24an
Andoainera

2014ko abenduaren 19a, 422 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Urnietako etorkizuna irudikatu dute Plan Orokor berrian

Etxebizitzak, DBHko eraikina eta industriguneak eraikitzen hasteko atea zabalik dago.

Olentzero aurreratu egin da Urnietan, Egu-berriak gainean ditugun egun hauetan. Esateko modu bat da, aurrerantzean etxebizitza berriak eraiki ahal izateko hirigintza plana behar beharrezkoa zelako. Eta hori dagoeneko errealitate bilakatu da. Hainbat urtez luzatu da, aurreko arau subsidiarioak aspaldi agortuta zeuden arren. Gauzak horrela, eta Aldundiak behin betiko onarpena eman eta gero, Udalak Urnietako etorkizuna irudikatu du Plan Orokor berrian.



Argazkien gainean irudi-muntaia ikusgai izan dira Lekaion, zeinetan argiro azaltzen den planak biltzen dituen aurreikuspenak. Babiloni eremuan etxebizitzak (gorriz) eta ikastetxea (laranjaz). Miraballes aldean, berriz, industrigunea (urdinez).

Bertan, ezin bestela, aspaldiko asmo bati ateak irekiko zaizkio: Egaperen Derrigorrezko

Bigarren Hezkuntzako eraikin berriari, alegia. Gaur egungo Egape ikastolaren jarraipena

“Aspaldiko asmo bati ateak irekiko zaizkio: DBHko eraikin berriari, alegia”

izango da eta, hain zuzen, obra hori bideratzea lehentasunezkoa izango da. Horrekin batera garatuko da Babiloni eremuko etxebizitza sorta. Udalak eman dituen datuak aurreikuspenak dira, gehieneko etxebizitza kopuruak beti ere. Hori horrela izanik, planaren aurkezpenean adierazi zutenez Babilonin 340 etxebizitza eraikitzeko asmoa dago. Eta horietatik, 187 lirateke babes ofizialekoak.

Babiloniko eremuaren garapena ziurtatuta, egitasmo berriak landuko lituzkete Trankatzen eta Azkaraten.

[URNIETA, 2-3. ORRIALDEAK]

Urtarrilean abiatuko da ekimena



Aurreko astean aurkezpen ekitaldia egin eta gero, urtarrilean erakusketa batekin emango diote hasiera mendeurrenako ospakizun sortari. Urte oparoa izango da.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

Santomas eguna eskualdean



Igandean goizean zehar Andoainen, Juanita Alkain plazan. Eta Urnietan, arratsaldeko 17:00etan hasita San Juan plazan.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Zanpatuz mendi elkartea sortu dute



Kirolariek eta mendizaleek osatu dute Zanpatuz elkartea.

Urteak dira Urnietan mendi elkarerik ez dagoela, hilabeteotan herritar talde batek proiektu hori gauzatzea erabaki du, talde lanaren bitartez mendi zaletasuna sustatu asmoz. Besteak beste, Xabier Irastorza eta Jokin Lizeaga izan dira sustatzaileetako bi. Iazko azaroan hasi ziren asmoari bueltak ematen, zer egin, nola..., eta orain egun gutxi bukatu dituzte sortze lan guztiak.

Abenduaren 26an, ostiralarekin, mendi elkartearen aurkezpena egingo dute Saroben, iluntzeko 19:00etan. Sortzaileek hitza hartuko dute, eta elkartearen funtzionamenduaren berri eman. Jardueraz bete nahi dute egutegia. Hasteko, San Silvestre lasterketa herrikoia antolakuntza lanean ariko dira Poxta Zahar eta Super Hache elkarteekin elkarlanean.

[KIROL ALBISTEAK, 10. ORRIALDEA]



ARROPA BITXIKERIAK

Kale Nagusia 6 - ANDOAIN
943 59 12 24

EGUBERRI ON!



HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN AURKEZPENA

Urnietako etorkizuna garatzen hasteko Plan Orokorra

Gipuzkoako Foru Aldundiko Boletin Ofizialean argitaratzearekin batera, Urnietako Hiri Antolamendurako Plana onartuta dago. Eta, beraz, ateak zabalik daude azpiegitura berriak garatzen hasteko.

Aurreko astean plan berriaren maketak ikusgai izan ziren Lekaion, eta Mikel Pagola alkateak eta Ahizpea Lazkano Udal arkitektoak xehetasunak azaldu zituzten han bertan.

Belaunaldi oso bat Urnietatik kanpo etxebizitza bila joateko arrisku bizia zegoela eta, garai onean dator Plan Orokor berriaren onarpena. Aldundiak eskatuta, eta Udalaren oniritziarekin, hiri etxebizitza eremu nagusi garatuko dituzte. Hurrenez hurren, Babiloni, Trankatx-Ermotegi eta Azkarate. Zer esan nahi du horrek? Babiloni martxan jarri eta eremu hori nahikoa garatzen denean, orduan hasiko direla Trankatx-Ermotegi eremua garatzen.

Ahizpea Lazkanok erabaki hori arrazoitu egin zuen, "Aldundiaren eskaera izan zen lehentasunen arabera zerrenda egitea. Zer dela eta hori? Eremu bat garatzen hasi eta osorik garatu gabe beste batekin hasteko beldur direlako. Hirurak ere eremu handiak dira eta bakoitza etxebizitza ko-

puru handiekin. Eremu bakoitzean espaloiak eta farolak jartzen hasi eta etxebizitzak altxa gabe bere horretan utziko bagenu, itxura zatarra hartuko luke herriak. Udalak eta Aldundiak hori saihestu nahi dute". Horrek Babiloniko egitasmoa ia bere horretan garatzea behartuko ditu. Behin eremu hartako %80a garatuta edo eraikita, Trankatx-Ermotegi eremua garatzen hasiko dira.

Bizi kalitatea bermatu behar du Udalak, garatuko duen eremu bakoitzeko: ekipamenduak, zirkulazioa, mugikortasuna, gune irekiak. Udal arduradunek argi ikusi zuten Babiloni zela garatu beharreko lehen eremua, bertan kokatuko baita Egaperen eraikin berria. Udal agintari eta Udal ordezkari ezberdinen asmoa beteko da horrela. Hor izango da egitasmo handiena etxebizitza berrien eraikuntzarekin bate-



Mikel Pagola Urnietako alkatea eta Ahizpea Lazkano Udal arkitektoa, aurreko ostegun arratsaldean Lekaion egin zuten aurkezpen ekitaldian.

ra, baina ez da bakarra izango. Idiazabal kaleari *boulevard* izaera eman nahi diote, oinezkoaren eta merkataritzaren mesedetan.

Bigarren eremua Trankatxekoa izango da, eta beharrak eskatzen duenean Azkarate izango da garatuko duten hirugarren eremua. Trankatxen aldeko apustua egitean, "herrigunearen kohesioa mantentzea" helburu dute: "Herrigunetik abiatuta handitu beharko litzateke Urnieta. Ibilerak murriztu egiten dira eta bizi kalitatea hobea da herrigune trinkoetan".

Lehen bi egitasmoekin etxebizitzaren beharrak asetzen ez badira, Idiazabal kalea eta Salesiar ikastetxea lotuko litzatekeen *auzunea* eraikitzen hasiko lirateke.

UDALARENA DA HITZA, LURJABEENA ERABAKIA

Plan berria garatzeari argi berdea emanda, *eta orain zer?* galdetuko dute urnietarrek. Udalak arauak ezarri eta gero, lurjabeek eman behar dute hurrengo pausoa: "Udalak ezin du zuzenean eremu horiek garatzen hasi. Lurjabeek elkartu eta plana garatu behar dute". Hurrengo pausoa, beraz, jabeek egin behar dute eta, "noski, Udalak ahal duen laguntza guztia eskainiko die".

Udalak ezarritako arauetan, eraiki daitezkeen gehieneko etxebizitza kopuruak zehazten dira. Eta kopuruez gain, etxebizitza mota ere aldeztu aurretik ezartzen da. Gauzak horrela, Urnietako Plan Orokor berrian egungo legedia bete beharko da. Eta etxebizitzetara dagokien...

Gazteei begira Urnietan babes ofizialeko ehunka etxebizitza garatzeko aukera zabalik dago orain

nez, eremu eraikigarrietan etxebizitza guztietatik %55a babes ofizialeko etxebizitzetara bideratu behar da. Eta %20 etxebizitza tasatueta. Hori, esan bezala, legez ezarrita dago. Gazteei begira, beraz, Urnietan babes ofizialeko ehunka etxebizitza garatzeko aukera zabalik dago orain.

Udalak garatu dituen maketak, gaur gaurkoz, orientagarriak dira. Ez dute zertan irudietan ikusten diren bezala garatu behar. Planak gehieneko azalera eraikigarriak ezartzen ditu, etxebizitzaren lerroak edota altuerak... Baina kaleak eta plaza berriak gune bakoitzeko plan partzialetan landu eta onartu beharko dira.

HEZKUNTZARAKO ERAIKINA

Azken agintaldietan, alkate eta Udal ordezkari guztiek Egapeko ikastetxearen DBHko eraikin berriaren aldeko jarrera agertu dute. Premiazkotzat jotzen zuten. Lurra Udalak jarriko du eta Jaurlaritzak eraikina. Hori horrela izanik, Udalak Eusko Jaurlaritzari eraikitzen hasteko 8.000 metro karratuko eremua utziko diola aurreikusi dute.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ERIONAK
eta urte berri On!



Egape Ikastola 2014-15

HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN AURKEZPENA



1. BABILONI EREMUA

340 etxebizitza egiteko aukera.
187 babes ofizialekoak aurreikusten dira.

2. TRANKATX-ERMOTEGI

270 etxebizitza egiteko aukera.
110 babes ofizialekoak aurreikusten dira.

3. AZKARATE EREMUA

460 etxebizitza egiteko aukera.
253 babes ofizialekoak aurreikusten dira.

Udalak garatu dituen maketak, gaur gaurkoz, orientagarriak dira. Ez dutezertan irudietan ikusten diren bezala garatu behar

NEKAZAL EREMUA ETA BASERRIEN ETORKIZUNA

“Baserriekin zer gertatuko da?”, galdera bera eta galdera horren erantzuna planaren aurkezleen ahotik entzun ziren. Lazkanok irtenbidea aurkitzeko ate bat ireki zuen: “Geroz eta ustiakuntza gutxiago dago. Bestalde, Udaletxean eskaera asko jasotzen dugu lehengo baserriak bitan zatitze-ko, bertakoek laguntza behar dutelako. Eta horretarako, seme-alabak gertu eduki nahi dituzte. Aukera hori zabalik egon daiteke, beti ere baserri horrek nekazal jarduera edo

ustiapenik baldin badu”. Pagolak, bestalde, nekazal eremuetan bizi direnen garrantzia azpimarratu zuen, “jendeak baserrietan bizitzeko jarraitu behar du. Landa eremua zainduta badago, bertan bizi diren baserritarengatik da. Baserrietan bizitzeko jarraitzea garrantzia handikoa da”.

INDUSTRIGUNEAK, LEHENIK MIRABALLES

Urnieta, Andoain, Hernani... Donostialdea eremua estrategikoa dela adierazten dute Udalak gaindiko erakundeek. Etxebizitzekin egin bezala, industri- gune berriak lehentasunaren arabera eraikiko dira. Milluts- Miraballes eremua erraztasun- gatik lehentasunezkoa da. Eta hurrena garatzen Urkain Berri izango da. Biak ere lehendik zeuden eremuen osagarri bila- katuko dira: Milluts-Miraballes Erratzuren jarraipena da, eta

Miraballes industri- gunea Erratzuren jarraipena da, eta Urkain Berri Ergoien jarraipena. Biak ere estrategikoki oso kokapen onean daude

Urkain Berri Ergoien jarraipena. Biak estrategikoki oso kokapen onean daude, garraio saretik oso gertu. Saletxeberri- ko eremua ez dute Plan Oroko- rrean sartu, AHTko lanak era- bat amaitu arte gune osoa ze- haztea ezinezkoa baita.

Plan Orokor berriarekin etorkizuneko Urnieta berria fikziotik baino errealitatetik gertuago dago.

Urnieta handituz joango da, eta Udalaren erronka handi izaten asmatzea izango da. Hazkunde hutsaz harago, zer- bitzuak bermatzen asmatu be- harko du.



INDUSTRIGUNEAK:

Urkain Berri 125.000 m² | Miraballes 77.000 m²

1.711

Enpresa berri



Zuri esker

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



Hiazintoren antzezlan



Segurako antzerkizale taldeak aurreko larunbatean Hiazinto Fernandorenaren an-

tzezlan taularatu zuen. Euskara eta euskal irakas-kuntza ardatz duen lana da.

Bezeroaren astea martxan



Larunbata bitarte mila euroko erosketa txartelak eta ehunka sari zoz-

ketatuko dituzte On Bizi elkarteko merkatalguneetan.

Ekitaldiak Denda Berrin

Abenduak 18, osteguna
18:00 Bingoa.

Abenduak 19, ostirala
16:30 Karta-joko txapelketa-

ren hasiera. Segidan Santomas ospatuko dute, txistorra janez. Arratsaldeari amaiera emateko, zozketa sorpresa.

Mus txapelketa azkarra

Abenduaren 27an Santa Kruz elkartean, arratsaldeko 16:00etan hasita. Bikoteka

20 euro ordaindu behar dira eta lehen lau sailkatuentzat, beti bezala, sari ederrak.

Saio bikoitza eskainiko dute larunbat honetan, Saroben

Bost egun dantza egiteko

Five days to dance” ekimenak sekula dantzan egin ez dutenei bost egunetan koreografia bat ikasteko erronka luzatu die. Proiektu hau Europako hiri ezberdinetan praktikatzen dute astero. Oraingoan Urnietara ekarri dute eta, Udalaren eta Donostia 2016 egitasmoaren babesarekin, Egapeko DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek dantzan pasa dute astea.

Erronka argia da: bost egunetan koreografia prestatzea. Beraz, astelehenetik ostiralera bitarteko egunak izan dituzte taula gainera igo eta dantza ikasteko. Horretarako, bi koreograforen laguntza izan dute, eta Edu Muruamendiarrak arduratu da dantzaren koordinazioaz. Guztira 85 gazte inguru aritu dira eta egunero gorputz adierazpena landu dute eskola orduetan kiroldegian.

Ekimen honek dantzak gizartean dituzten rolak apurtzera behartu ditu ikasleak eta proiektuaren helburuak harremanetarako ezohiko esparru



Five days to dance saio esperimental, larunbat honetan Saroben.

Astebeteko esperientzia hori jendaurrean aurkeztuko dute larunbat honetan, Saroben

Erronka argia da: bost egunetan koreografia prestatzea eta jendaurrean taularatzea

bat sortzea, dantzaren bidez errespetuaren balioak bereganatzea eta sormena prozesu partekatu gisa ulertzea izan dira.

Astebeteko esperientzia hori

jendaurrean aurkeztuko dute larunbat honetan, Saroben. Bi emanaldi egingo dituzte, bata 16:30etan gurasoei zuzenduta eta bestea 18:00etan herritar eta zale guztiei irekita.

Gabonak 2014 Urnieta



Olentzero, jaiotza eta gabon-txartelen erakusketa abenduaren 18tik urtarrilaren 5era herriko saltokietan

IGANDEA 21

17:00 San Joan plaza
San Tomas azoka

ASTELEHENA 22

11:00 - 13:00 Lekaio
Sormen tailerra eta paratxutarekin jolasak. 5-8 urte

17:30 - 19:30 Lekaio
Sormen tailerra: buruhandia. 9-11 urte

ASTEARTEA 23

11:00 - 13:00 Lekaio
Sormen Tailerra: buztina eta ginkana frontoian. 5-8 urte
18:00 Berrasoeta parkea
Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

ASTEAZKENA 24

12:00 San Joan plaza
Ikastetxeetako Olentzeroen topagunea

17:00 San Joan plaza
Gabon kantak kalean

OSTIRALA 26

17:00 Sarobe
Dantza ikuskizuna: "Spaceko Zarama" (euskaraz)

IGANDEA 28

16:00 / 18:30 Sarobe
Zinema: "Friends: Abentura Munstroen uhartean" (euskaraz)

ASTELEHENA 29

11:00 - 13:00 Lekaio
Sormen tailerra eta jolasak. 5-8 urte

17:30 - 19:30 Lekaio
Sormen tailerra eta Ginkana frontoian. 9-11 urte

ASTEARTEA 30

11:00 - 13:00 Lekaio
Sormen tailerra: mosaikoa eta harrapaketa jolasak. 5-8 urte

17:30 - 19:30 Lekaio
Sormen tailerra eta paratxutarekin jolasak. 9-11 urte

ASTEAZKENA 31

16:00 San Joan plaza
San Silbestre lasterketa

LARUNBATA 3

16:30 - 18:30 Kiroldegia
Zirko Tailerra

IGANDEA 4

11:00 - 13:00
16:30 - 19:30 Kiroldegia
Puzgarriak

ASTELEHENA 5

18:00 Kalean
Errege magoen Kabalgata

943 00 80 33



Urnietako Udala

ARRATSALDEKO 17:00ETAN HASITA TXISTORRA, HERRIKO SAGARDOA, TALOA, SAGAR TARTA ETA ABAR LUZEA

Santomas azoka igande honetan Kontzejupean

Zein da Urnietako Santomas azokaren bereizgarria? Zalantzarik gabe, usadiozko sagardo txapelketa. Urnietan bertan egindako zukuaz gozatzeko aukera aparta da. Aurtengo edizioan bederatzi baserrik

parte hartuko dute. Goiburu auzotik, Altzibar, Antso, Milluts eta Montefrio; Oztaran auzotik, Elutseta eta Bidegurutzeta; eta Lategi auzotik, Sabordegi, Sorozabal eta Errotaburu.

Datorren igandean, abenduaren 21ean, Iñistorra elkarteak antolatutako hainbat ekitaldiren bidez, Santomas eguna ospatzeko aukera izango dute urnietarrek. Aurreko urteetako moduan, ekitaldi guztiak San Juan plazan eta Kontzejupean egingo dira arratsaldeko 17:00ak aldera hasita.

GAZTAINAK, TALOAK, SAGARDOA, TXISTORRA, TRIKITIXA...

17:00etan irekiko dituzte Iñistorrak kontzejupean jarritako txistorra eta herriko beserrieta-ko sagardoa dastatzeko postuak; taloak eta gaztain erreekin beste postu bana jarriko da ere. 20:30ak aldera bukatutzat emango da jaia Gabonetako saskiaren zozketarekin eta Sagardo Txapelketako irabazlearen botila baten enkantearekin. Bertan, izango dira jaia alaitzen, Lurdes Iriondo musika eskolako trikitilari gazteak.

GAZTAREN KINIELA

Aurreko urteetako moduan, gaztaren kiniela egingo da azokan, euro baten truke, han jarriko diren bi gazten pisua asmatu beharko da. Pisua asmatu edo gertuena ibiltzen denak eramango ditu bi gaztak etxera. Jada, gazta hauek San Juan plazako Kantoi tabernan eta Idiazabal kaleko Guria tabernan daude eta bertan izango dira Santomas egunera arte, aurrez kiniela bete nahi dutenentzat.



Herritar ugari hurbiltzen da Kontzejupean, Santomas egunean.

SAGAR TARTA LEHIAKETAREN V. EDIZIOA

19:00etan sagar tarta lehiaketa egingo da bosgarren urtez. Bertara aurkezteko, aurrez etxean tarta egin eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara bitartean udaletxeko arkupetara eramatea nahikoa izango da. Parte hartzea irekia izango da urnietarrentzat zein kanpotarrentzat. Partaide bakoitzari txanpain botila bat emango zaio ordainetan eta txapelketako irabazleak sari bikaina jasoko du. Sari banaketa ekitaldia amaituta, aurkeztutako tartak dastatzeko aukera emango zaie bertaratzen direnei.



Aurtengo edizioan zortzi baserrik parte hartuko dute sagardo txapelketan.

ZORTZI BASERRITAKO SAGARDOA VI. SAGARDO TXAPELKETAN

19:30etatik aurrera burutuko da egun horretako ekitaldirik nagusiena: VI. Urnietako Usadiozko Sagardo Txapelketa. Txapelketa etxerako sagardoa egiten duten Urnietako sagardogileei zuzenduta dadago. Aurtengo edizioan bederatzi baserrik hartuko dute parte. Goiburu auzotik, Altzibar, Antso, Milluts eta Montefrio; Oztaran auzotik, Elutseta eta Bidegurutzeta; eta Lategi auzotik, Sabordegi, Sorozabal eta Errotaburu. Epaimahaia, urtero bezala, hiru gizonen eta hiru emakumez osatuko da.



SAGARDO TXAPELKETA AURTENGO PARTAIDEAK:

Goiburu auzotik:

Altzibar, Antso, Milluts, Montefrio.

Oztaran auzotik:

Elutseta, Bidegurutzeta.

Lategi auzotik:

Sabordegi, Sorozabal, Errotaburu.

IRABAZLEAK URTEZ URTE:

6. edizioa	2014	
5. edizioa	2013	Sabordegi
4. edizioa	2012	Sabordegi
3. edizioa	2011	Errotaberri
2. edizioa	2010	Elutseta
1. edizioa	2009	Milluts



URNIETARREN LEPOZAPI DOTOREA SALGAI!

Santomas egunean urnietarren lepozapi dotorea izango da salgai, ez nolanhikoa!!!

- Lihozko oihalean josia.
- Herriko armarrria, dotore apaindua, brodatua.
- 12 €-tan, Iñistorra laguntzeko.

Mugi txartelaren erabiltzaileak

%64



Zuri esker

garraio publikoa gipuzkoarren % 64ren onurarako da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



Andoaindarrak 400 ekimena urtarrilean abiatuko da



Kantu Jira taldekoek abestu zuten mendeurrenako ekitaldien aurkezpena.

Urtarrilaren 2an, 18:30tan, mendeurrena ardatz duen erakusketa zabalduko dute Basteron. Bertan, Susana

Truchueloren "Andoain 1615: hiribildu berri baten historia" liburuxka ere aurkeztuko dute.

Juanita URRITZA BALDA andrea,

Andoainen hil zen, abenduaren 12an, 89 urte zituela.

Zein emakume gozoa,
bai bizilagun atsegina;
zein euskaldun jatorra eta
kastako nafarra bai fina!

Eskertzen dizugu bihotzez
beti gure alde egina;
oroitzapen ezitia josiz,
aingeru batena adina!!

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lagunak,
esker onez
Beterri, 2014ko abenduak 13.

M. LARRAMENDI

ANDOAIN BIZI!!



Andoaingo Udalak, Salkin elkarteak eta herriko ikasketxe-ek Eguberri hauetarako hitzor-

du ugari antolatu dute. Aurreko asteburuan truke azoka izan zen Zumea plazan eta da-

tozen egunetan Santomas ospakizuna, Olentzeroren etorrera, etab.

IRUNBERRIREN URTEURRENA



Aurreko igande eguerdian Irunberri elkartearen bertso bazkariari hasiera eman aurretik, elkarte-kideek batzarra egin zuten eta ondoren omenaldi ekitaldia. Irudian, elkarteko hainbat kide musika tresnak eskuetan Irunberri elkartearen ereserkia eskaini zuten. Kantu, dantza, bertso eta txalaparta saioarekin osatu zen omenaldia.

GABONETAKO KONTZERTUA



Soinuak musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute larunbat honetan, Bastero Kulturgunean. Arratsaldeko 18:30an hasiko da. Doan da.

Aurretik, ostegun honetan eta Basteron ere, Udala musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskaini zuten.


ANDOAIN BIZI !! i Live Andoain!



Eguberri atariko festa
Goizez, Zumea Plazan. Merkatu txikia. La Salle Berrozpe Ikastetxeak antolatua.



San Tomas Eguna
11:30-13:30 Txistorra postuak Juanita Alkain plazarxoan. Kale animazioa Kaletxiki txarangarekin.



Gabon Gaua
Olentzerori harrera kalez kale, Larramendi Ikastolaren eskutik.



22tik 23ra eta 26tik 30era
Gazte Astea



Kale animazioa
Goizez, Kale animazioa txistulari eta dultzaineroekin, Goikoplazatik Zumea plazaraino. Pajeen irteera Errege Magoei zuzendutako eskutitzak jasotzeko. Arratsalde, Bertso poteoa eta trikitixa, Goikoplazatik Zumea plazaraino. Urte Zahar gaueko DJ festa Nafarroa plazan.



Ikuszirkus
20:00 Bastero Kulturgunean

ikuszirkus



Artisautza, gaztain jatea
Goizez, Zumea plazan. Artisautza azoka.

Goizez, Juanita Alkain Plazarxoan Gaztaina erreak. Urki dantza taldeak antolatua.



Gabonetako Haur Parkea
30, Allurralde: 16:00-20:00. 31, Allurralde: 11:00-14:00 / 16:00-19:00.



Errege Magoen etorrera



Gabonetako promozio kanpaina
Salkinen Eguberrietako kanpaina, Gabonetako saskia irabazteko aukera

Laguntzaileak



ANDOAINGO UDALA

ODOL-EMALEEI SARIA, FERNANDO GASTON HERRIKIDEARI OMENALDIA

Joxe Mari Olazabal sariak Basteron

Andoaingo hainbat pertsona eta horien balore ongileak izan ziren protagonista joan zen ostegunean Basteron egin zen, Joxe Mari Olazabalen bidea ekitaldian. Hain zuzen, Andoaingo Caritas eta Odol

Emaileen elkarteko iraganeko eta orainaldiko bultzatzaileak omen-
du ziren, egunez egun hurkoari erakutsi izan dioten elkartasun eta eskuzabaltasunagatik.

Jose Emilio Lafuente Gipuzkoako Caritaseko ordezkariak hartu zuen hitza ekitaldian hasieran, elkarteak berriki plazaratu duen txostenaren muina azaltzeko: "txirotasuna eta bazterketa soziala ez ditu krisiak soilik eragin; arazoa estrukturala da, ekonomiara gehiegi bideratzen den gizarte eredu batean bizi baikara. Eredu horrek giza-
kia ez du ipar nagusiztat bilakatzeko, zoritxarrez".

Ondoren, Andoaingo hainbat herritarrek esker oneko saria jasotzeari ekin zioten, Ainhoa Aiertzak aurkezturik. Andoaingo Caritasen histori luzean bere partaide izan diren **Jose Mari Txopeitia, Rosario Urretabizkaia, Itziar Arin, Joakin Okiñena** eta **Mari Kruz Gaztañagak**, elkartearen sorrera irudikatzen duen pergamino baten saria jaso zuten lehendabiziko partean.

Aurtengo martxoan zendu den **Fernando Gaston**en oroitzapenak eragin zituen gaueko unerik sentikorrenak. **Maria Angeles Estanga** bere alarguna, alabak eta bilobak oholtzara igo ziren, eta azken hauek aureskua dantzatu zuten. Gastonen zenbait giza balio nabarmentzen zituen ikus-entzunezko bat ikusi ahal izan zuten Bastero bete zuten ikusleek; behartsuenekiko eskuzabaltasuna eta lanerako konstantzia aipatu zituen muntaiak, besteak beste. **Edurne Gastonek** familiaren izenean hitza hartu, eta bere aitak maiz aipatu ohi zuena ekarri zuen gogora: "ni zorte oneko pertsona izan naiz beti; benetan meritua daukatenak, behartsuak dira, traba guztien aurka borroka egin behar izaten duten ho-



Fernando Gaston oroitu zuten, eta ekitaldiko unerik hunkigarrienean bilakatu zen. Irudian, bere bilobak aureskua dantzatzen.

Argazkiak, bideoak: Aiurri.com, Flickr.

riek". Ekitaldiaren amaiera alde-
ra, Andoaingo odol-emaileen ki-
deak igo ziren oholtzara, **Joxe**

Mari Olazabalen bidea saria jasotzera. Honako herritarrek, hain zuzen: **Jose Antonio San Juan, Jo-**

**se Mari Tolosa, Kontxi Arin, Ando-
ni Arribillaga, Maria Karrera, Anto-
nio Garrido, Felix Ramirez, Guada-**

**lupe Fierro, Martin Gorostidi, Eu-
genio Usarralde eta Arantxa Arbe-
ras.**



Andoaingo odol-emaileak, Iñaki Arregi eta Joxe Mari Olazabalekin ekitaldiaren ostean.



Beste urteetan bezalaxe, Caritaseko kide izan direnei pergamino bana oparitu zieten: Jose Mari Txopeitia, Rosario Urretabizkaia, Itziar Arin eta Joakin Okiñena.



4.784

Pertsonentzako laguntza sozialak

Zuri esker

Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.

Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



URTARRILAREN 5era bitarte Eguberrietako sorta lor ezazu denda eta saltokietan erosiz

- ADATS ILEAPAINDEGIA
- AITZBELTZ
- AMANTEGI MERTZERIA
- ANA M^o GOXOTEGIA
- ARBERAS MARGOLARIAK
- BENEITEZ OINETAKOAK
- EDERGAI
- EDUR TABERNA
- ERNAITZA LIBURUDENDA
- ETXEBERRIA M.L. HARATEGIA
- FRANCIS BOUTIQUE
- GODOY ILEAPAINDEGIA
- INTER. INFORMATIKA
- ITURBE OINETAKOAK
- IZEIA
- JAUREGUI DROGERIA
- JAVIER ZERAMIKAK
- KURPIL GARMENDIA
- LA HUERTA DEL PAIS
- MAINDI OPTIKA



- MAPFRE ASEGURUAK
- MENDI AUTOESKOLA
- NEREA ARRAINDEGIA
- NUEVO SIGLO ILEAPAINDEGIA
- OGI DONOSTI (NAGUSIA)
- OGI DONOSTI (ZUMEA)
- OLASAGASTI LORADENDA
- OLLOKI TABERNA
- ONDARRETA TABERNA
- ORMENDI KIROLAK
- PATXI CICLOS
- PEPI LENZERIA
- POTTOKO
- SENDAKI BELARDENDA
- STOP LIBURUDENDA
- URKIOLA TABERNA
- XALO ESTANKOA
- XARE OINETAKOAK
- ZABALA BITXITEGIA

Artisautza azoka hilaren 27an Zumea plazan. 10:00-14:00

Har ezazu parte eta lor ezazu Salkin elkarteko denda eta saltokietan erosteko 200 euroko txekea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ANDOAINO UDALA

Ane Gurutze Uitziri eta Xabier Sanchezi elkarriketa

Olentzero eta Mari Domingi

Abenduaren 24a egun berezia izaten da **Ane Gurutz Uitziri** lasartear eta **Xabier Sanchez** ando-aindarrarentzat.

Eguberriak magiaz betetako egunak dira. Abenduaren 24an zuek piztuko duzue ilusioa Andoainen. Zer sentitzen duzue?

Ane Gurutz Uitziri: Ilusioa eta poza. Haurren begietan sortzen den magia ikusteak ilusio handia pizten digu. Oso polita izan ohi da.

Xabier Sanchez: Goizetik hasita, eguna berezia da: haurrak jantzi bereziak jantzita ateratzen dira etxetik, kantuan ibiltzen dira, gaztain jatea egiten da... Egun berezi horren puntu bat gehiago gara, haurren ilusio hori eta magia mantentzen laguntzen dugunak.

Zer da gehien gustatzen zaizue-na?

X.S: Harrera: tuneletik ateratzean kriseiluekin egiten dituguten pasiloa. Momentu hori oso polita da, bertan dauden haur guztiak guri begira egoten baitira, zakua gainean duen gizon itsusi hori zertan ari den beldurrez.



Iluntzean Bekoplazara iritsiko dira Mari Domingi eta Olentzero.

Haurrei zer erantzun ez dakizuela geratu al zarete inoiz?

A.U: Batzuetan ezagutu egiten gaituzte eta aurpegi arraroarekin begiratu, ezagun egiten zaielako gure aurpegia. Baina, gure paperean jarraitzen dugu.

X.S: Behin, geldirik geunden momentu batean, aurre-aurrean 5 edo 6 urte inguruko hiru neskaila nituen niri begira. Ez nintzen ohartu niri begira zeudenik, baina horietako bat, ezagun baten alaba zen eta oihuka hasi zen: "Zu ez zara Olentzero! Itasoren aita zara!". Bere bi lagunak harriturik zeuden, zer pentsatu ez zekitela eta erabat nahastuta. Horrelakoak gertatu daitezke, kalean bizarra uz-

ten ari naizela ikusi dezaketelako, ahotsa ezaguna zaielako..., baina Olentzeroren laguntzaileak garelako esaten diegu; Olentzerok ezin duela leku guztietara iritsi eta laguntzeko eskatzen digula.

Zein da Olentzero eta Mari Domingiren desioa 2015era-ko?

A.U: Haur, gazte zein helduek ilusiorik ez galtzea. Egun bereziak izaten dira eta egun horietan sortzen den magia hori ezin dugu galdu.

X.S: Hori da garrantzitsuena, ilusioa ez galtzea eta guztiok ditugun bizi eta lan proiektuak bideratzeko indarra izatea, aurrera ateratzeko oztopo guztien gainetik.

Kale Nagusiko Keinu dendan Tio Nadal gogoan hartuko dute

Kataluniako ohitura bertan

Kataluniako ohitura ekarri dute Andoaingo Kale Nagusiko Keinu dendara. Nadal abenduaren 9an etxera etortzen den enborra da, Eguberriak bitarte jaten eman behar zaiona. Gauero, enborra esnatu eta haurrek utzitako janaria jaten du. Abenduaren 24an, kaka egiteko eskatzen zaio abestuz eta honek haurrentzako gozo-

kiak botatzen ditu. Ohitura hori jarraituz, Keinun arratsaldeko 17:30ak edo 18:00ak aldera, Nadal ate ondora aterako dute. Haurrekin batera Nadali abestuko diote. Makil batekin joz, Nadalek *kaka* egingo du eta honek haurrei gozokiak banatuko dizkie. Kataluniako ohitura bertan ikusteko aukera izango da, beraz.



Tio Nadal Keinu dendan.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Giza eskubideen eguna

Ohituta gaude honelako edo halako egunak ospatzera: Euskararen eguna; Giza eskubideen eguna eta hainbat eta hainbat egun berezi. Ongi ikusten ditut baldin eta egun berezi horiek gaiaren kontzientzia hartzeko laguntzen badute, folklore hutsean gera baitaitezke. Nazio Batuen Erakundeak giza eskubideen zerrenda zabal luzea egiten du: zer ikusi eta ikasi badugu. Giza Eskubideak norbanako zein herri gisa pertsona orok bi dimentsio horiek baititugu; biak elkarosatzen dira eta ezin da bata bestea gabe ulertu.

Duela gutxi, Giza Eskubideen eguna ospatu da eta, gure herri honek pairatu duela edo, sentsibiltate apartekoa du. Giza eskubideen urraketa oroitu, aitortu eta guztiaren egia aurkitu eta aldarrikatzeko eskaera bere bidea egiten ari da. Egun horren harira, han-hemenka puzzle gisako mosaiko bat osatu da, non ikusi ahal den urraketa horien ondorioak badoazela poliki-poliki sendatzen eta zauriak ixten. Jakina, beti daude kontrapuntuak eta aipagarriak, noski, baina beste irudiek ere merezi dute aipatzea. Eta eredu gisa bisualizatzea.

Esaterako, egun horretan Eusko Jaur-laritzan sari bat jaso zuten bateko eta besteko biktimak bizikidetzan bidean hainbat urrats ematen saiatu direlako. Historiarako argazki ederra iritzi nion. Jakina, indar politiko guztiak ez ziren bertan egon betiko aitzakia justifikaezinak erabiliz, hots, biktima guztiak ezin direla zaku berdinean sartu etab. Ez dut errepikatu-ko beti erabili izan dudana argudioa, sufri-menduak ez duela ñabardurarik eta nork bizi izan duen esperientzia bat dela, alegia. Iraganaren kontaketa behar da baina izan dadila kontaketa osoa eta sufri-mendu guztiak errespetatuz.

Niri irudiko, esparru honetan aurrera-pauso handiak eman dira eta, merezi du horrelako egunak ospatzea gizarteak kontzientzia hartu eta berritu dezan.

FRANKISMOA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Izenburu berezia jarri diot ez eskubideak, sufri-mendua eta gainontzekoak desberdinak direlako, baizik azken aldi honetan Frankismoaren krimenak eta ekin-tzak ere ugarituz doazelako eta metodologia bezala egokia iruditzen zaidala-

ko. 1997tik ETArein zein Estatuaren alde-tik eman diren giza eskubideen urraketak tratamendu konplexuagoa behar dutela deritzot. Bestalde, ni neu ere, 1977koaren aurretik nago eta garai horri izenburu berezia eman nahi izan diot.

1936ko Gerra zibilak eta gure garai-koak, frankismoaren azken urteak alegia, denbora gutxian dimentsio zabal luzea hartzen ari da. Oroimen talde ugari dago Euskal Herrian eta lanean fin ari dira. Asteburuko Berria egunkariak orrialde-ak eskaintzen dizkio gai honi eta *memoriaren arkeologia* izenpean informazio sakona dakar. Nire edo gure kasuan, Frankismoaren azken urtetako errepresioa jasan genuenok geroztikakoak gara eta honen inguruan sortu dira oroimen talde berriak, eta elkarrekin lan ederra egiten ari direla deritzot. Lekuko Argentinan jarritako kereila, 1936koak eta gero-koak elkartu baikinerekin kereila jartzeko.

Argentina. Duela urtebete jarritako kereila aurrera doa. Inputatuak ere ugarituz doaz nahiz eta Espainiako Gobernuak mila oztopo jarri. Jakina, kereila irekia da eta oraindik badira Euskal Herrian hainbat pertsona familiartekoren bat fusilatua edo desagertua dutenak. Osasungarria da behar diren urratsak eman zauri hori sendatzeko. Badirudi urtarri-lean Servini epailea berriro Espainian izango dela. Duela egun gutxi bildu ziren Espainiako Kongresuan kereilante eta abokatuak zenbait kongresistekin. Ez denekin, jakina PPK eta PSOEk ez baitute entzun ere egin nahi.

Andoaingo ekitaldia. Ez nuke zutabe hau itxi nahi hil honen 9an Andoain-en egin zen ekitaldiari buruz aipamen-txo bat egin gabe. Frankismoaren krimenen inguruan eta Andoaingo oroimen taldeak antolatua. Zorionak antolatzaileei! Jarri zituzten argazkiak niri behin-tzat inpresio sakona egin zidaten. Familiartean izan zen baina oroimen xume bezain hunkigarria egin genien Andoain-en 36ko Gerran fusilatuei. Eta beren familiei, noski. Horrelako ekitaldiak eta taldeak merezi du han-hemenka sortzea. Orain, talde hauen lanari erakundeek hel-du behari diote, batik bat, Udalek. Tal-deek egiten ari diren lan horri gorputza eman, gune txukun bat prestatu eta erre-konozimendu publikoa egin. Ea egia den!

Birziklatze
tasa

%42



Zuri esker

Gipuzkoa hondakinen %42 birziklatzen ari da eta 2016an %60a iritsiko da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.





MENDIZALETASUNA

Zanpatuz mendi elkarteak sortu dute Urnietan



Zanpatuz mendi elkarteak sortu da Urnietan, mendi zaletasunak izan duen berpizteari bultzada emateko.

Hilaren 26an egingo da aurkezpen ekitaldia Saroben, 19:00etan; elkarte irekia da, eta urnietar orok nahi adina ekarpen egiteko aukera izanen du.

Iragan mendean, 80. eta 90. hamarkadetan, Sarrioak izeneko mendi elkarteak utzitako lekukoa hartuko du Zanpatuz mendi elkarteak aurrerantzean. Urteak dira Urnietan mendi elkarerik ez dagoela, baina herritar talde batek proiektu hori gauzatzea erabaki du, talde lanaren bitartez mendi zaletasuna sustatu asmoz. Xabier Irastorza eta Jokin Lizeaga izan dira sustatzaileetako bi. Lizeaga bera aski ezaguna da mendiko lasterketetan munduko korrikalari onenen artean ibili delako, eta haren arrastoan, hainbat urnietar ere mendian gora eta behera hasi dira: “Orain 10 urte bi edo hiru urnietar irteten ziren Urnietan-Adarramendi lasterketan, baina Jokinen maila bikainak haren lasterketak ikusteko jende multzo polita biltzea eragin du. Mugimendu horrek jende gehiago mendian korrika hastea ekarri du, bakoitza bere mailan, eta mendi elkarteak hazkunde prozesu horren azken pausoa da”, esan du Irastorzak.

Pasa den urteko azaroan hasi ziren asmoari bueltak ematen, zer egin, nola, eta orain egun gutxi bukatu dituzte tramite guztiak. Ez da lan erraza izan, asko izan direlako bete beharreko paperak, eman beharreko pausoak. Baina buka-



Hilaren 26an, ostiralez egingo dute mendi elkartearen aurkezpena Saroben, iluntzeko 19:00etan.

tu dute prozesua, mendi elkarteak osatu. “Presarik gabe ibili gara orain arte, eta aurrerantzean ere lasai egingo dugu bidea, helburu handi-handirik jarri gabe”, Lizeagaren ahotan. Elkartearen izaera irekia aipatzen dute bi gazteek behin eta berriro, “mendi elkarteak mendi zaletasuna duten urnietarrena izango baita. Haien ekarpenekin, proposamenekin egingo du aurrera proiektu honek, beraz animatu dadila jendea”.

Egin edo antolatuko dituzten ekintzak zehazten joango

dira pixkanaka, baina zertzelada batzuk eman dituzte. “Hiruzpalau izan litezke 2015ean, ikusiko da”. Urteko azken egunean, San Silvestre lasterketa herrikoian antolakuntza lanean ariko dira Poxta Zahar eta Super Hache elkarteekin elkarlanean. Urnietako Mendi Lasterketan laguntzeko konpromisoa ere hartu dute, eta Leitza ibilbideren bat ere antolatzekotan dira, Inauterietan. Mendi lasterketan batera irteera antolatuak egiteko intentzioa ere badago, eta baliteke

eskiatzeko irteera bat ere antolatzea. Udari begira, Pirinioetara egun pare bateko irteera egitea litzateke asmoa. Irastorzarena da ñabardura: “Herritarren oniritzia, babesa, parte hartzea beharko duten ekimenak”.

Hilaren 26an, ostiralez egingo dute mendi elkartearen aurkezpena Saroben, iluntzeko 19:00etan. Sortzaileek hitza hartuko dute, eta elkartearen funtzionamenduaren berri eman: zanpatuz@gmail.com helbidea sortu dute, iradokizu-

San Silvestre lasterketa herrikoian antolakuntza lanean ariko dira Poxta Zahar eta Super Hache elkarteekin elkarlanean

nak jasotzeko, eta twitter eta facebook kontuak ere abian jartzekoak dira. Bilera irekien maiztasunaren inguruan ere xehetasunak emango dira. Lizeagaren ustez, mendi elkarteak “ilusioa daukaten norbanakoei babesa emango die, eta agian bakarka antolatzeko modurik ikusten ez dituzten ekintzak gauzatu, laguntza egokia ematen bazaie”.

Zanpatuz aukeratu dute izen gisa. Arrazoiak sinpleak dira: “Izen bat jarri behar zen, eta WhatsApp bitartez erabaki genuen. Norbaitek izena proposatu zuen, eta horrekin egin da aurrera. Bidexkak larra eta otea zanpatuz mantentzen dira, ezta?”. Kluba sortu den neurrian, sortzaileek mendi federazioko txartela egiteko proposamena egingo dute aurkezpen ekitaldian. “Urnietan, mendi elkarte baten faltan, beste klub baten federatu diren mendizale asko daudelakoan gaude, eta horiek gurera erakarri nahi genituzke, pixkanaka handitzen joateko”.



Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

argiaren alde

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 20, LARUNBATA

bi saio: 16:00 eta 18:30

Sarrerak: Aurretik 7 euro. Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Harremanetarako: ☎ 943 37 15 45 · sustapena@argia.com

Antolatzailea

ARGIaren Adiskideak Usurbilgo Taldea



Laguntzaileak

Kilometroak 2015







ESKUBALOIA

Eskubaloia txapelketa urtarilaren 3an

Urtea hastearekin batera, XIV. Errege Eskubaloia Txapelketa jokatu da Andoainen. Leizaran taldeetako neskek Bizkaia eta Nafarroatik etorritako taldeen aur-

ka jokatu dute; Oberena, Baztango eta Urdaibai izango dira herrian, hain zuzen. Lau klub horietako 13 talde lehiatuko dira eta, guztira, 200 jokalaria.

Leizaran eskubaloia taldeko zuzendaritza taldeko kideek diote neskak motibatuta daudela, egun berezia izaten delako. “Beti talde berdinen aurka jokatzera ohituta daude. Adin berekoen aurka jokatzeko dute urtero eta ez dituzte lehiakideak aldatzen”, dio **Haize Irulegi**. Horrelako txapelketek jende berria eta jokatzeko modu berriak ekartzen dituzte. Esperientzia berezia izaten dela azaldu du entrenatzaileak: “Oso egun polita da, taldea goizean goizetik elkarrekin dagoelako. Elkarrekin bazkaltzen dute eta harreman polita sortzen da kirolarien artean”. Gainera, elkarrekin artean animatzen direla eta giro bikaina sortzen dutela irizten dio **Gurutz Letamendi** zuzendariak. zuzendariak kideak.



Haize Irulegi, Iñigo Sarasola eta Gurutz Letamendi Leizaran taldeko kideak.

Eskubaloia hobeto ezagutzeko entrenamenduak egingo dituzte abenduaren 22tik 27ra bitarte, alebin mailakoentzat

“Gure jokalaria bat estatuko onenekin jokatzeko ari zela pozgarria da. Esperientzia oso ona izan da”
Haize Irulegi

PRESTAKETA SAIOAK ALEBIN MAILAKOENTZAT

Alebinen artean ere txokoa izango du eskubaloia Eguberrietan. Eskubaloia hobeto ezagutzeko entrenamenduak egingo dituzte abenduaren 22tik 27ra bitarte. **Iñigo Sarasola** zuzendaritzako kidea eta senior mailako jokalaria da eta berak dioenez, eskolarretan ezberdin jokatzeko dute: jokalaria bat guxtiagorekin eta zela txikiagoan.

“Gure taldean beste eskubaloia mota bat jokatzeko dugu eta hori erakusteko egiten ditugu entrenamendu horiek. Kirola ezagutarazteaz gain, gazteak animatzeko ere balio du”.

Haizek dioenez, talde indartsua da herrian, zaletasun handia dago eta jokalaria asko mugitzen ditu. Horregatik, adin horretan kirola ezagutu eta gustatzen bazaie, jarraitzeko aukera eman behar zaiela uste du.

LEIZARAN BIDE ONETIK DOA

Senior mailan gogor ari dira lanean eta Iñigok dioenez, denboraldia ondo hasi ez bazuten ere, azken hiru partidak irabazi egin dituzte. Denboraldi honetarako erronka Euskadiko bigarren mailara igotzeko fasera sailkatzea da eta horretarako lanean dihardute.

Bestalde, jubenil eta kadete mailako neskek Euskal Ligan sartzeko helburua zuten, hurre-

Mutiletan senior mailan denboraldi honetarako erronka Euskadiko bigarren mailara igotzeko fasera sailkatzea da

go urtera begira klub bezala jokatzeko aukera ere lortu zeza ketelako: “Jubenilak ondo doaz, lehenengo zatia nahiko erraz pasa dute, baina orain datoz partida zailenak. Aukerak badituzte”, dio entrenatzaile lanetan aritzen den Haizek. Kadete nesken kasuan, aldiz, guxtigatik, baina ez dute helburua lortu. “Lan egin dute, baina ez dute lortu. Dena den, garrantzitsua da helburu batzuk jartzea eta horiek lortzen saiatzea”, adierazi du Gurutzek.

Taldea bide onetik doala erakusten duen beste adibide bat Izaskun Olasagastirena da. Espainiako selekzioarekin Ciudad Realen egon da, eta Norvegia, Suedia eta Portugalen aurka jokatu du. Haizek dioenez, oso gustura ibili da. Partida guztiak galdu zituzte, baina asko ikasi du: “Gure jokalaria bat estatuko onenekin jokatzeko ari zela pozgarria da. Esperientzia oso ona izan da eta guztiz indarberrituta etorri da, han ikasitakoa hemen praktikan jartzeko animatuta”.

San Silvestre Urnietan

Lasterketaren bigarren edizioa, **Poxta Zahar, Zantapuz mendi elkartea** eta **Super H**.taldeen eskutik. Antolatzaileek moztarotuta agertzeko deialdia luzatu dute. Izen-ematea: Kantoi, Xauxar eta Amailur. 3 euro.

Egunean bertan: Helduak 5 euro, eta haurrak 1.

16:00 Haurrak. Bi itzuli plazari. Jarraian helduak. Hiriguneko zirkuitu bati bi itzuli. Bost kilometro.

Ademgi golf txapelketa



Esklerosi anitza duten Ademgi elkarteak Goiburun txapelketa antolatu zuen. Taldeka hauexek izan ziren irabazleak: **Joxe Adrian Arriaga, Euxebio Arriaga, Lucia Oña** eta **Gurutz Mendiaraz**.

Erremontea

Gipuzkoako txapelketa herriko bi taldeen artean erabakiko da, larunbatean Galarretan 10:00etan. Bikoteak: Ansa-Ozaeta eta Goi-ketxea-Matiarena.

Ganbara

Katukale 43-46 Ganbara Sen Oiarso 30-50 Ganbara Kad Ganbara Inf 30-22 Soralue

Zuri esker



garraio publikoa gipuzkoarren %64ren onurarako da.

Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.



mendekotasuna duten 26.472 pertsona artatzen ditugu.

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

azken bi urteotan 1.000 lagun gehiago matrikulatu da euskaltegietan.



Gipuzkoa hondakinen %42 birziklatzen ari da eta 2016an %60ra iritsiko da.



Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkoragoa. Justuagoa.



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietak). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

ABENDUAREN 18TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “Trash”
19:30, 22:00. Abenduak 20.
19:30. Abenduak 21.
19:30, 22:00. Abenduak 22.
- “Mortadelo y Filemón”
Abenduak 20 eta 21. 17:00.
- Laster: “El Hobbit”
Urtarrilak 1, 2, 3, 4 eta 6.

Urnietak, Sarobe

- “Anthoy, pequeño gran heroe”
16:00, 18:30.
Abenduak 21, igandea.
- “Friends, abentura munstruen uhartean”
Abenduak 28, igandea.
- Dokumentalak:
“La doctrina del shock”,
Abenduak 23, asteartea.
- “Ekuador: Sumendien bailara”
19:00. Zanpatuz mendi taldearen eskutik.
Abenduak 26, ostirala.

Gazte Astea

Urnietak, Gaztelekua

- Abenduak 22, astelehena:
Futbol txapelketa.
Abenduak 23, asteartea:
Opari tailerra.

Andoain, Gazte Lokala

- Abenduak 22, astelehena:
09:00. Futbola.
17:00. Zumba tailerra.
Abenduak 23, asteartea
09:00. Futbola.
17:00. Antzerki tailerra.

Musika

Andoain, Bastero

- “Jainko txiki eta jostalari hura”: Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal. Berriaren eskutik, Joxan Lizarribarren omenez.
20:00. Sarrera: 15 euro.
Abenduak 19, ostirala.
- Soinuak, ikasleen Gabonetako kontzertua.
18:30. Doan.
Abenduak 20, larunbata.
- Begoña Bang Matu eta bere taldea, Siroka Ska.
22:00. 6 euro. Gaztetxea.
Abenduak 27, larunbata.

Dantza

Urnietak, Sarobe

- “Five days to dance”
16:30. Gurasoei zuzenduta.
18:00. Saio irekia.
Abenduak 20, larunbata.

Santomas

Urnietak

- Inistorrak antolatutako festa: sagardoa, sagar tarta, zozketa eta giro ederra.
Azoka: 17:00-20:30.
Abenduak 21, igandea.

Andoain

- Kale animazioa Kaletxiki txarangarekin.
11:30-13:30. Juanita Alkain.
Abenduak 21, igandea.

Olentzero

Urnietak

- 18:00. Berrasoeta parkea.
Abenduak 23, asteartea.

Andoain

- Harrera, kalez kale.
18:30. Bekoplaza.
Abenduak 24, asteazkena.

Aisialdia

Urnietak, Lekaio

- 11:00-13:00 [2006-2009],
Abenduak 22, 23, 29, 30.
Buruhandia egin, ginkana...
17:30-19:00 [2003-2005],
Abenduak 22, 29 eta 30.

Andoain, Allurralde

- Gabonetako haur parkea:
16:00-20:00.
Abenduak 30, asteartea.
11:00-14:00 / 16:00-20:00.
Abenduak 31, asteazkena.

Festa

Andoain

- Abenduak 31, asteazkena:
02:00 Karaokea Irunberrin.
DJ festa Nafarroa plazan.
- Urtarrilak 5, astelehena:
23:00 Gin gaua Irunberrin.

Azoka

Andoain, Zumea plaza

- Salkin elkartearen eskutik.
10:00-14:00. Artisautza.
Abenduak 27, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Mikel abenduaren 1ean jaio zen. Zorionak! Miguel eta ama Nataliari. Marijose, Floren, Josefi eta Rafael aitona-amonon, eta Victoria eta Florencio birraitona-amonaren partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Maialen etxeko "printzesak" 20 urte beteko ditu! Hamarkada berriaren aurrekoan bezain zorte ona izatea opa dizugu. Muxuak etxekoan partez. Ondo pasa!

ANDOAIN

ZORIONAK



Markel abenduaren 21ean 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handibat Danel, aita eta amaren partez.

URNIETA

ZORIONAK



Eleone, abenduaren 23an egin-go dituzun 7 urte potoloengatik. Muxuak aita, ama eta Maddi.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ander, 16 urte! Ederki ospatu ditugu. Besarkada bero bat, etxeak.

ANDOAIN

■ **OHARRA** Eguberrietako oporraldia dela eta, Aiurri astekaria ez da abenduaren 26an eta urtarrilaren 2an argitaratuko. Eguberri on!

■ **URTARRILAK 10, MOBILIZAZIOA BILBON:** Asteburuan hasita, **Sarek** euskal preso politikoen eskubideen defentsan “*Argi dugu! Now, Euskal Herrira*” lemapean Bilbon urtarrilaren 10erako deitu duen mobilizaziora busean joateko izena emateko zerrendak ohiko lekuetan egongo dira. Aurtengoan, ohiko zerbitzuaz gain, larunbat gauean itzuliko den autobusa ere antolatuko dute.

ZANPATUZ URNIETAKO MENDI TALDEAREN
AURKEZPENA



ABENDUAREN 26an, 19:00etan, Saroben Ondoren...

"EKUADOR: SUMENDIEN BAILARA"
PELIKULAREN EMANALDIA



Egileak: Andoni Urbistondo eta Joseba Oiarzabal



**Spaceko
Zarama**

familia ikuskizuna

**Abenduak 26, ostirala
Sarobe AEG
17:00etan
Sarrera 3 €**

Aurresalmenta:
Sarobe eta Lekaio
kultur etxean,
abenduaren 22tik aurrera

